

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak garapenerako hezkuntza proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdia zabaldu du 649.000 euroekin

*Nafarroako unibertsitate eta GKEei zuzenduta daude eta sentsibilizazio nahiz elkarlana sustatzeko ekintzak lagunduko dira*

Asteartea, 2019.eko martxoak 12

Nafarroako Gobernuak 649.000 euroko dirulaguntzen deialdia zabaldu du, Nafarroako unibertsitate eta GKEei zuzenduta garapenerako hezkuntza proiektuak eta sentsibilizazio ekintzak garatzeko.

[Deialdiak](#) gizartea garapen bidean diren herrialdeen arazoekiko sentikorrako bihurtuko duen eta elkarren mende dagoen munduari buruzko kontzientzia eta ulermen kritikoa garatuko dituen esku-hartzeak finantzatzea du xede, elkartasuna eta lankidetzak aktiboak bultzatuz.

Dirulaguntza hau Eskubide Sozialetako Departamentuak garapenerako lankidetzak laguntzen programaren laugarren lerroa da, ekimen honek aurtun 9,4 milioi euroko aurrekontua izanen du. Gainontzeko hiru lerroak larrialdi egoeretan giza ekintzak, garapen herrialdeetan giza eta ekonomia interbentzioak eta Saharako biztanlegoari zuzendutako ekintzei daude zuzenduak.

Laguntza hauek jaso nahi dituzten erakundeek eskaerak eta dagokion dokumentazioa modu telematikoa aurkeztu ahal izango dute, Nafarroako atarian argitaratutako deialdiaren [fitxan](#) "Tramitar" aukera baliatuz, edo Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bitartez. Eskubide Sozialetako Departamentuaren Erregistroan ere (González Tablas 7, 31005 Iruña), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2005 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako tokietan. Gainera, eskaerak Nafarroako Gobernuaren ez diren beste erregistro ofizial batzuetan aurkezten badira, horren berri eman beharko diote unitate kudeatzaileari, mezu elektronikoa bidaliz [servcoopdes@navarra.es](mailto:servcoopdes@navarra.es) helbidera, aurkezpen egunean berean. Eskaerak aurkezteko epea jada zabalik dago eta maiatzaren 8an, asteartean, amaituko da.

### Hiru ekintza modalitate ditu laguntzen deialdiak

Deialdi honek hiru esku-hartze mota jasoko ditu: sentsibilizazio ekintzak, garapenerako hezkuntza esparru ez-formaletan, eta garapenerako hezkuntza esparru formalean:

-Sentsibilizazio ekintzak: Esku-hartze horien xeda da garapen bidean dauden ehrialdeen arazoen ezagutza erraztea, batik bat aurrerapen txikiena duten herrialdeena, eta txirotasunaren arazoak eta globalizazioaren harreman ekonomikoak, sozialak eta kulturalak ulertzen

laguntzea. Modalitate honetara 224.000 euro bideratuko dira, eta eskaera bakoitzeko gehienez 25.000 euro emango dira.

-Garapenerako hezkuntza esparru ez-formalean: Hezkuntza asmoa izanik eta irakaskuntza-ikaskuntzaren esperientziak planifikatuta direla, hezkuntza formalaren esparrutik kanpo gertatzen diren hezkuntza prozesuak bultzatzen dituzten esku-hartzeak dira. Modalitate honek 66.000 euroko dirulaguntza izanen du, eta eskaera bakoitzeko gehienez 25.000 euro bideratuko dira.

-Garapenerako hezkuntza esparru formalean: Legez araututako hezkuntza sisteman garatzen diren jarduera pedagogiko guztiak lagunduko dira. Zenbait urtetarako esku-hartzeak izanen dira, ikasturte batean egiten baitira. Modalitate honek 359.000 euroko aurrekontua izanen du eta 2019ko ekintzetarako 134.000 euro bideratuko dira, 225.000 euro 2020an. GKEn kasuan proiektu bakoitzak gehienez 30.000 euro jasoko ditu eta unibertsitatea bada onuraduna 20.000 euro.

Guztira 2019an, helburu horietarako 424.000 euro bideratuko dira, 2018an baino %12 gehiago, eta gainontzeko 225.000 euro 2020an garatu beharreko ekintzetara zuzenduko dira, garapenerako hezkuntza esparru formalean modalitateko proiektuetara.

### **Balorazio irizpideak**

Entitate bakoitzak gehienez hiru eskaera aurkeztu ahal izanto ditu, hiruak ezingo dira izan modalitate berekoak.

Dirulaguntza ematerakoan, Departamentuak eskaera egin duen GKEn inguruko datuak izango ditu kontuan, esku-hartze proposamenaren kalitatea, eta proiektuaren egokitzapena Nafarroako lankidetzaren estrategian jasotako zeharkako ikuspegiarekin.

Hala, aktoreei dagokionean, Nafarroan GGKEk duen lan egiteko kapazitatea eta ezarketa hartuko dira kontuan.

Proiektuari dagokionean, modalitatearen arabera, kalitate teknikoa aztertuko da, analisia, helburuak, metodologia, exekuzio prozesua, jarraipena eta ebaluazioa aztertuz.

Azkenik, zeharkako helburuen artean genero ikuspegia, garapen jasangarria, eskubideak eta parte-hartzea, eta antolaketa komunitatea kontuan hartzea baloratuko da.